



## Gabonak, ate joka

Usadiozko ekitaldi ugari izango dira Andoainen eta Urnietan, datozen egunetan. Dagoeneko, Olentzero eta Mari Domingi lan eta lan ari dira / 6-7

AIURRI

## Nahia Patinoren alde

Abian jarri dute Andoaingo haurren aldeko ekimen solidarioa / 10-11

**Unai Villegas**  
andoaindarrak eta Lide  
Lizeaga urnietarra,  
Zizurkilgo Gau  
Krosetan garaile / 13

**Egitarau oparoa,**  
datozen egunotan,  
Andoainen eta  
Urnietan. Agenda  
beterik dator / 14

**ZORIONAK eta URTE BERRI ON!**

Doinua: Gaueko izar

24a bukatzean da nahi dugu gogorarazi zuek nahiko lan egin duzue eta guk berriz ikasi guk Egapetik zuen etxera nahi genuke adierazi urte zaharra ondo bukatu berria hobeto hasi

EGAPE LH 6A

*Yulene Holgado 4.DBH*





## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



## Euskaltzaleek elkarretaratze berria deitu dute Urnietan

Ostegun honetan izango da, iluntzeko 19:00tan hasita, udaletxearen aurrealdean

### Erredakzioa URNIETA

Urnietan, ohi bezala, abenduan egiten da urte berriko udal aurrekontuaren eztabaida eta bozketak. Ostegun honetan izango da hori, iluntzeko 19:00tan hasita. Iaz eta aurtun, bi urtez jarraian, beraz, Aiurri astekariari bideratutako dirulaguntza nabarmen murriztuko da. 10.000 eurotan, zehazki. Hori dela eta, euskaltzaleen mugimenduak erabakia-zen aurka protesta egiteko elkarretaratzea deitu du. Murrizketarik ez egitea udalaren ekarpena eguneratzea eskatuko dute.

### Babes zabala jaso dute deitzaileek

Gizarte bizitzan eragile diren elkarte asko aurki daitezke. Honako hauek: Aballarri Guraso Elkarte, Asketa Taldea, Bagara Talde Feminista, Egape Dantza Taldea, Etxeberrri Plazako Auzo Elkarte, Hernanialdeko AEKko Irakasleak, Inñistorra, Manttale Kultur Elkarte, Poxta Zahar, SuperH, Txanbolin Txistulari Elkarte, Urnietako Bertso Eskola, Urnietako Gaztetxea, Xoxokako Auzo Elkarte eta Zanpatuz Mendi Elkarte.

## Familia Lagunen ikasturteko lehen topaketa

Andoaingo Ongi Etorri Eskolara udal proiektuak "Familia Laguna" programako familien topaketa egin zuen "Andoaindarr" elkarte gastronomikoan. Hala, Aita Larramendi Ikastolako, Ondarreta Herri Eskolako eta La Salle Berrozpe Ikastetxeko familiek hainbat jatorritako janaria dastatzeko aukera izan zuten. Gainera, Vica eta Elik musikaz alaitu zuten arratsaldeko egonaldia. Antolatzaileek ekitaldira hurbildu ziren familiei eskertza adierazi nahi diete eta baita Andoaindarr elkarte gastronomikoari ere beren espazioan kulturartekotasuna sustatzeko aukera eskaintzea gatik.

## Bazkideak bilerara deitu ditu Manuel Larramendi Bazkunak

Helburua abenduaren amaieran itxiko duten diru-bilketa bereziaren emaitza xehea ematea da

### Erredakzioa ANDOAIN

Ostegun honetan, abenduak 19, iluntzeko 19:30ean hasita, bilera deitu dute "abenduaren amaieran itxiko dugun aurtengo diru-bilketaren emaitza xehea bazkideei ezagutzera emateko eta hurrengo asmoak zeintzuk diren adierazteko". Bilera Arrate pilotalekuko bilera gelan izango da. Ondoren, Elizondon Topazurrut egingo dugu, aurtengo ahaleginari amaiera emateko brindisa". Ezaguna denez, "Andoingo Euskera, Bihotzetik Kalera!" kanpaina burutu dute.



Azaroaren 9an azoka antolatu zuen eta, abenduaren 5ean, jaialdia. AIURRI

## Taupa mugimendua bilakatu da Euskaltzaleen Topagunea zena

Euskara elkarten federazioa eta Euskaraldiaren dinamizatzaile da Taupa mugimendua

### Erredakzioa ANDOAIN

28 urte dira Euskara elkarten federazioa, Topagunea, sortu zenetik. Xede ugari izan ditu urteotan: kultur programazioa eskaini, aholkularitza administratiboa, aisialdi egitasmoak, toki hedabideak, Mintzalaguna,...

Kafe Antzokian aurkeztu zuten, jendaurrean, denbora luzez landutako eraldaketa: "Euskarak eta herri honek jauzi bat behar dute. Aurreko belaunaldien lorpen nagusia euskararen ezagutza hedatzea izan bazen, egun euskararen alde gabiltzanon

erronka erabilera biderkatzeko baldintzak sortzea da, datorrena 'erabileraren aroa' izan dadin. Horretarako, euskararen auziak agenda publikoan lehentasuna lortu beharko du, adostasun sozial, politiko eta instituzional berriak josi beharko dira, eta orain artekoak baino anbizioitsuagoak izango diren neurriak hartu. Eta horrekin batera, euskaltzale aktibista gehiago beharko ditugu, korrontearen kontra ere, euskaraz bizitzeko hautua egingo dutenak, eta eraldaketa gorpuztuko dutenak".



Taupamugimendua.eus webgunean ekimen berrituaren informazio ugari aurki daiteke. AIURRI



## PROTAGONISTA

# "Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira"

**IMANOL GONZALEZ** EDERGAI DENDA ANDOAINGO GOIKOPLAZAN DAGO Hiru hamarkaden ostean, laminazioari eta enmarkazioari nagusiki bideratutako negozioak ateak itxiko ditu. Sektore osoaren gainbehera bizi dugu, urteotan

**Erredakzioa** ANDOAIN**Zenbat urte egin ditu zure negozioak Goikoplazan?**

Hogeita hamar urte. Lau urte aurreko dendan, eta gainerakoak hemen Goikoplazan. Oso gustura egon naiz bietan.

**Zer nolako esperientzia eramango duzu zurekin?**

Ona izan da, amaierakoa ezberdina da, ezinbestean. Baina, oro har, esperientzia ona da.

**Denda ixtear zaude, zer nolako sentsazioa duzu?**

Txarra. Hogeita hamar urtez bertan lanean izan eta gero gogorra egiten ari zait. Gainera, lanean jarraitu beharko dut eta bilaketan ari naiz. Nik nire lana gogoko nuen.

**Aurrera jarraitu nahi zenuen?**

Bai, noski! Baina ezinezkoa da, zeren eta negozioa ez da garai batekoa. Kontsumo-ohiturak aldatzen ari dira. Jende gehienak, eta, bereziki, gazteek, nire esperientziagatik, Internet darabilte kontsumorako eta hori guretzat erraldoi baten aurka aritzearen parekoa da. Lehiatzea ezinezkoa zaigu dendari txikiok. Borroka galdua da hori.

**Zeintzuk dira oroitzapen onenak?**

Hasierako garai haiek, Andoainen apustu egin nuelako. Nire herria da eta Andoain haztea nahi nuen. Gogoan dut jendeak esaten zidala dendarik ez irekitzeko herrian, oso udalerrri zaila zela Andoain. Hogeita hamar urte eta gero ikuspegia aldatu egin da baina uste dut bere garaian hartu nuen erabakiarekin apustu hori irabazi nuela.

**Lagunak egin dituzu lanbideari esker?**

Bai, lagun asko egin dut. Oso gustura egon naiz bezeroekin. Zein zailtasun ditu, egu,n tokiko merkataritzak?

Internet da gure lehiakidea eta tokiko merkataritza horren ondorioz gaizki dago. Gazte jendea-



Imanol Gonzalez, aste honetan, Goikoplazako Edergai dendan. AIURRI

## "INTERNETEKIN LEHIATZEA EZINEZKOA ZAIGU DENDARI TXIKIOI. BORROKA GALDUA DA HORI"

ri bost axola tokiko merkataritza, internet bidezkoa gogoko dute. Haiekin lehiatzea ezinezkoa da. Interneten eragina, halere, merkataritzaz harago nozituko dugu. **Azken egunotan zer diote dendara hurbildu zaizkizun bezeroek?**

Hartutako erabakiarekin pena handia hartu dute. Ez zuten espero, ezustekoa izan den hainbaitentzat. Baina ulerkorrek dira behin egoera zein den azaltzen diedanean. Oro har, denok dugu sentsazio beretsua. Guztiak ari gara jabetzen bizimodua aldatzen ari dela eta, bidean, negozio txiki asko eroriko dira.

Pena handia hartzen dut merkataritzaren galera udalerrirentzat ere galera handia delako. Lotarako gune bilakatuko gara eta hiriburuetara bideratuko da aurrez aurreko salerosketa. Etsigarria da sektorearen errealitatea: Leitzaran markoak itxi zen, Lasarte-Oriako denda ere itxi da eta Tolosakoa hiru urteren buruan itxiko da. Gure hornitzaileak ere ixten ari dira, pixkanaka. Margolan bat marko batean sartu nahi duenak Donostiara joatea beste erremediorik ez du izango. **Eta, 2025ean, zer?**

Lan berria topatu behar dut eta osasunez ondo jarraitu.

**Zein mezu eman nahiko zenieke andoaindarrei?**

Herriaren alde egitea bezalakorik ez dago. Borroka galduen aurrean borrokari eusten jarraitu behar dugu. Andoainen alde gehiago egin dezatela eskatuko nieke.

## KOMUNITATEA

**HURRIA-SAHARA** ANDOAIN

## Elikagai-bilketa Andoainen

Hurria Sahara elkarteak elikagai-bilketa kanpaina berria jarri du abian Aljeriako Tindouf eremuko desertuan bizi diren errefuxiatu sahararren alde, "Elikatu" izenburukoa. Kanpaina horren lehenengo jarduera larunbat honetan egingo da, abenduaren 21eko goizean: elkarteko kideek Andoaingo behekaldean eta Azoka inguruan diru-bilketa egingo dute, eta herritarrek emandako ekarpen ekonomikoak zuzenean elikagaiak erostera bideratuko dira. Egutegi bat ere eskuratu ahal izango da.

Egoera larria bizi da errefuxiatuen kanpamentuetan: egun, bertako biltegietan urte amaierara arte bakarrik dago janaria, iazko azaroan Elikagaien Munduko Programak %30 murriztu baitzuen oinarritzko saskia mundu mailako prezioen igoera dela eta. Programa honen estandarren arabera, pertsonako eta hileko hamasei kilo banatu behar dira (hamabi kilo zereal, bi kilo lekale, litro bat olio, 750 gramo azukre, eta patatak, tipulak, azenarioak...) baina une honetan errefuxiatuen artean hamaika kilo inguru ari dira banatzen.

Gai horri buruzko erreportaje zabala argitaratu du Berriak. Bertan Saharako

Ilargi Gorriko Presidenteak adierazpen hauek egin ditu: "Stocka amaitu egin da. Pasta aspaldi amaitu zen. Babarrunik ez dago. Garbantzu gutxi. Produktu freskoak ere ez daude. Urritik apenas daukagun arrozik. Dilistarik ere ez dago, gofioa ere ez, eta garagarra oso gutxi. Haragirik eta arrainik, berriz, ez dugu jasotzen aspalditik"

Egoera horren aurrean, agintariei eta erakundeei saharar herriarekiko duten erantzukizuna gogoraraziko diegu, eta, era berean, herritarrei ekarpen solidarioa egitea eskatu nahi diegu, gure elkartasunak lagunduko baitu zuzenean sahararregana elikagaiak iristea.

Elikagaiak biltzeko guneak epe laburrean egongo dira eskuragarri herriko denda gehienetan, eta oporraldiaren ondoren Andoaingo ikastetxeetan ere jasoko dira arroza, pasta, azukrea, atuna, lekaleak... Glutenik gabeko elikagaiak bilduko dira aurten ere. Hurria Sahara elkarteak jabetzen da, azken hilabeteetan, herritarrek ekarpen handiak egin dituztela Valentziarako edo eta Elikagai Bankurako, eta, horregatik, alde aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu andoaindarrei sahararren bizi duin eta eskubideen alde laguntza emateko egiten duten ahaleginagatik.







# On Joxe Migel Barandiaran ezagutuz

Joxe Migel de Barandiaran Fundazioak eta EHUko katedrak proiektu berri bat jarri dute martxan, ikertzaile ataundarraren bizimodua eta ikerketa arkeologiko zein etnografikoak Euskal Herriko ikasleen artean ezagutarazi eta zabaltzeko asmoz

## Aiurri komunitatea

Aita Larramendi ikastola / ANDOAIN

Proiektuak antropologo ataundarraren izena eta izana bultzatzea du xede. Egitasmo hori ardatz hartuta, Andoaingo Aita Larramendi ikastolara bisitan etorri dira gaian oso jantziak diren Joxe Migel de Barandiaran Fundazioko lehendakaria den Abel Ariznabarreta, Joxe Migel Barandiaran Katedrako zuzendaria den Joxean Mujika eta Historian doktorea den Erik Arevalo. Horien eskutik DBH 2. mailako ikasleek euskararen eta euskal kulturaren zatitxo bat jasotzeko aukera izan dute. Bide batez, Barandiaranek bildutako Torto, Marimunduko, San Martin Txiki... bezalako pertsonaia mitologikoen ezagutza gaztetxoaren oroimenean gordetzea eta zabaltzea xede duen proiektua martxan jarri dute.

Beraz, On Joxe Migel Barandiaranek ikerketa lerro izan zituen Arkeologia, Etnografia/Antropologia Kulturala eta Mitologia bezalako hitz handiak ikasleei modu xumean azaldu dizkiete, berez zituen printzipio eta balioak bere lan egiteko moduan nabarmenduz, hau da, bere apaltasuna, zuhurtzia eta elkarlanerako asmoa erakutsiz.



Ikasleek esku artean izan dituzte indusketa ezberdinetan aurkitutako hainbat material. AITA LARRAMENDI IKASTOLA

## Indusketetan aurkitutakoa, esku artean

Ikasleek esku artean izan dituzte indusketa ezberdinetan aurkitutako hainbat material eta baliabide, hala nola, hezurak (matrailezurak, adarrak,...), harriak (suharriak), liburuak eta bideoak. Bidenabar, eskualde batzuetan, bereziki, Gipuzkoako Goierri bailarako Ataun herrian jasotako mito, elezahar eta ipuinak ezagutzeko parada izan dute, esate baterako, Ataun-ge jentilen etorrera.

Ekimen horrekin, Euskal Herrian, eta nazioartean, On Joxe Migel Barandiaranek utzitako arrasto sakona gaztetxoei ezagutzera eman eta eskuragarri jarri nahi dute eta, zalantzarik gabe, lortu dute. Lan bikaina egiten ari dira euskararen eta euskal kulturaren transmisioan. Transmisioak duen garrantzia erdigunean jarriz gogorarazten digute “izan zirelako garelako eta garelako izango direlako”. Plazera izan da ekimen horren parte izatea!



Tailer interaktiboak egin zituzten larunbat goizean. LA SALLE BERROZPE

## Tailer interaktiboak eta Gabonetako janari-bilketa

Ekitaldi sorta antolatu du La Salle Berrozpe ikastetxeak Gabonen atarian

### Erredakzioa ANDOAIN

Tailer interaktiboak antolatu zituen La Salle Berrozpe ikastetxeak, aurreko asteburuan, LH 5-6 mailako ikasleei zuzenduta. Ikastetxeak adierazi duenez, xedea “teknologia, zientzia eta emozioen mundu liluragarrian murgiltzea” zen.


La Salle Berrozpe ikastetxeak aurreko larunbatean ere, Gabonetako janari-bilketa solidarioa egin zuen Caritasekin elkarlanean. LH6 mailako ikasleen lanketa izan da eta egitasmoa biribiltzeko Goikoplazan elikagaiak biltzeko mahaia jarri zuten.



AIURRI

## Gabon kantari, ostiralean

Ondarreta Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak Gabon kantak abestuz ibiliko dira, kalez kale, ostiral honetan. Erronda Kale Nagusiko eraikinetik abiatuko da goizeko 9:45etan, eta handik Goikoplazarantz eta Nafarroa plazarantz abiatuko dira. Kantuan aritzeko Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleekin elkartu dira.




## Eguberrietako sariak

Sari hauek irabazi nahi?  
Abenduaren 16tik 31ra erosi  
Andoaingo saltoki eta ostalaritzan  
eta sari hauetako bat toka dakizuke.

-50€-25€  
-Bidaia esperientzia 1




## Erosi Andoainean

Eguberriak beti ekartzen zaitu etxera.  
Erosi Andoainean, mantendu bizirik herria.



TXU-TXU TRENA

Abenduak 28  
10:00 - 14:00  
Goikoplazatik aterako da





Taldeko argazkia atera zuten aurreko igandean, udal ordezkariekin batera. AIURRI

# Andoaindar berriei harrera-ekitaldia

Udaletxean igandean egin zuten harrera ekitaldia, aurten herrira bizitzera etorri diren hainbat jatorriko pertsoneri zuzenduta. 232 pertsona andoaindaru dira aurten, eroldaren arabera

## Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Udala ordezkatzuz, Andoni Alvarez alkatea eta Haize Barandiaran Ongizate zinegotzia, Aritz Alkain eta Belen Gonzalez (PSE-EE) eta Txitxu Ruiz (EAJ-PNV) izan ziren ekitaldian.

Alvarez alkateak azpimarratu zuen garrantzitsua dela "harremanak ereitea, indartzea eta iraunaraztea, komunitatea eta bizikidetzatza sendotzeko. Denok gara andoaindarrak, guztiok

eraikitzen dugu gure herria egunez egun, eta guztiok gara eskubide guztien jabe. Aniztasunaren definiziorik zintzoena aberastasuna dela uste dugu".

## "Ezagutu ditudan andoaindarrek oso inpresio ona eragin didate"

Nanette Cabaron Cabarga filipinarra Andoainera aurten heldu den pertsona horietako bat da. Iban Rodriguez andoaindarra eta biekin Istanbulen ezagutu zuten elkar. Hantxe maitemindu

eta Cabaronek Andoainera etortzea erabaki zuen. Hain zuzen, urrian heldu zen, eta ezkondu ere agudo egin ziren. Cabaronek igandean aitortu zuen oso denbora gutxi daramala Andoainen, bertakoa sentitzeko. Nolanahi ere, gaineratu zuenez, "oraingoz, ezagutu ditudan andoaindarrek oso inpresio ona eragin didate, irekiak dira. Ingurua ere oso polita da, eta Iban oso gida-turistikoa bikaina da, leku ikusgarrietara eramane bainau. Para-

disu batera iritsi naizela iruditzen zait".

Ezkonberriek turismoaz gozatzeko tartea eduki duten arren, aldi berean, aitortu zuten denbora gehiago eskaini behar izan dietela tramite burokratikoari, Nannerteren egoera legezatzeko asmoz.

## "Haurrak txukun ari dira egokitzen herrira"

Joana Alvarez hondurastarra Elena (13 urte) eta Bastian (10 Rivas bere seme-alabekin agertu zen udaletxeko harrera-ekitaldira. Alvarez, jaioterria utzi eta Donostiara bakarrik heldu zen lehenbizi, eta orain bi urte Andoainen hartu zuen bizitoki. Orain zazpi hilabete, berriz, bi seme alabak gerturatu zitzaizkion. Honela mintzatu zen Joana Alvarez, harrera-ekitaldian: "Herri abegitsua da Andoain, ez daukat kezatzekorik. Bi seme alabak maiatzean etorri zitzaizkidan, eta irailean ekin zioten

ikasturteari; txukun ari dira egokitzen herrira eta ikaskideekin, gogo onez joaten dira eskolara egunero. Oso denbora eskasa da euskara ikasteko, kostatzen ari zaie, baina jada hitz batzuk ikasi dituzte eta ulertzen ere hasi dira pixka bat".

## 232 pertsona, andoaindar berri

Andoaingo 2024ko eroldatze daten arabera, 232 pertsonak eman dute izena herrian. Hona zein jatorrikoak diren guzti horiek: Aljeria (9), Bielorrusia (1), Txina (4), Kolonbia (30), Boli Kosta (3), Kosta Rica (1), Kuba (3), Ekuador (1), El Salvador (2), Estatu Batuak (1), Filipinak (1), Honduras (24), India (1), Italia (3), Mali (1), Maroko (60), Mexiko (1), Nikaragua (24), Nigeria (6), Pakistan (1), Peru (6), Portugal (7), Dominikar Errepublikak (1), Errumania (10), Senegal (7), Siria (2), Tunez (1), Ukraina (5), eta, Venezuela (16).

Merry Christmas  
and a happy New Year!

Ondarreta 7 bajo, Andoain | 688 76 35 70  
[www.kiwicorneracademy.com](http://www.kiwicorneracademy.com)

Oihalab  
 Mertzerria  
 Ezazu egindako gauzak  
 Kanponbete txikiak

Kale Nagusia, 45. Andoain  
 634 139 533 - 943 095 241

Gaban zoriontsuak





# "Musu bana denei, laster izango gara zuekin!"

## MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

Gabon gauaren bezperako egunean, abenduaren 23an izango dira Urnietan Mari Domingi eta Olentzero. Aldiz, Andoainera, abenduaren 24an gerturatuko dira



Olentzero eta Mari Domingi Urnietan eta Andoain barrena ibiliko dira, hurrengo egunetan. AIURRI

### Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA

Kaixo-kaixo, aspaldiko Aiurriko irakurle koxkor hori! Begira-begira norekin egin dugun topo aste honetan... Mari Domingi-ekin eta Olentzerorekin! Begiak findu eta belarriak zorroztu, mezu inportantea baitaukate zuri esateko!

**Ate-joka da Gabon gaua... Urduri al zaudete? Ez baita lan makala egiten duzuen...**

**Mari Domingi:** Urduri samar gabiltza, baina poz-pozik, era berean. Guztia prest, ia-ia, opari erraldoiak paper ederrekin bilduta.

**Zeintzuk dira azken txanpako zereginak?**

**Olentzero:** Oso oso pozik gaude. Azken egunetan eskatu diguten guztiaren zerrendarekin gabiltza gora eta behera. Haurren azken orduko gutunak jasotzen eta irakurtzen.

**Mari Domingi:** Lasai egon behar dute, guztiak banatuko dizkiegu eta opariak, Urnietan zein Andoainen!

**Denbora-tarte luzea eskatzen al du gutun guztiak irakurtzea?**

**Olentzero:** Denbora eskatzen du, bai, baina Gabon gaua iritsi aurretik, eguntxo batzuk gelditzen zaizkigu, hortaz... Ez kezkatu!

**Mari Domingi:** Langile finak gura gu!

**Zalantzarik ez! Gau bakarrean egiten duzuen ikusita...**

**Mari Domingi:** Jakina! Nekatuta amaitzen dugu, baina poz-pozik egiten dugu!

**Zein da gehien eskatu dizueten oparia?**

**Mari Domingi:** Txakur Patruila, panpinak, trenak...

**Olentzero:** Baloia ere eskatu digu batek baino gehiagok... Jostailu mordoxka!

**Ikatzak banatzea ere tokatuko al zaizue?**

**Mari Domingi:** Ez... Inolaz ere! Haur guztientzat izango dira opariak, lasai egon!

**Olentzero:** Oso zintzoak dira haurrak. Behar bada, helduren bati baino gehiagori banatu beharko diogu, baina hurrei? Ez, ez!

**OPARIAK, JADA, PREST DITUZTE MARI DOMINGIK ETA OLENTZEROK, BAITA IKATZA ERE**

**Zer moduz portatu dira eskualdeko haurrak urte honetan?**

**Olentzero:** Oso zintzoak izan dira. Tarteka bihurrikeriak egiten harrapatu ditugu, baina normala da!

**Mari Domingi:** Oso ume jatorrak ditugu eskualdean!

**Urteari errepasoa emateko momentua izaten da, sarri, Gabon sasoa. Zer nolako izan da zuen 2024a?**

**Olentzero:** Nahiko gorabeheratsua, baina, beno, amaitzear da eta ea datorrenak zer ekartzen digun!

**Mari Domingi:** Oso polita eta berezia da guretzat, urtebeteren ondoren, haurrekin elkartu ahal izatea.

**Olentzero:** Opariak banatzeko irrikaz gaude!

**Zer desira diozue datorren urteari?**

**Olentzero:** Bakea, mundu guztian, eta haurrak ere baketsuak izan daitezela.

**Mari Domingi:** Elkarrekin zoriontsu izan daitezela urnietarrak eta andoaindarrak, inor baztertu gabe.

**Mezu berezirik bidali nahi al diezue eskualdeko herritarrei?**

**Mari Domingi:** Zintzoak izan eta jendea maitatu! Amona, aitona, gurasoak...

**Olentzero:** Eta... Lagunak! Horiek ere oso garrantzitsuak dira!

**Mari Domingi:** Muxu bana denei, laster izango gara zuekin! Birtartean, gozatu Gabonak!

## Hitzorduk, Andoainen eta Urnietan

Hitzordu bikoitza izango dute, egunotan, Mari Domingik eta Olentzerok eskualdean, izan ere, Gabon gaua iritsi aurretik Urnietara eta Andoainera gerturatuko dira.

Urnietan izango dute, lehen hitzordua, abenduaren 23an, arratsaldeko 17:30ean, Egape Dantza Taldearen eskutik. Aldiz, Andoainen, 24an bertan egingo dute bisita, Aita Larramendi ikastolak antolatuta. Arratsaldeko 17:30ean egingo diete harrera.





Gaztetxearen aldeko aldarrikapenak, Idiazabal kalean. URNIETAKO GAZTETXEA

## Gaztetxearen alde, Gabon giroan

Herrian gaztetxea egoteko beharra irmoki aldarrikatu zuen herriko gazte talde batek, orain pare bat aste. Bada, Gabonetan ere beren premia kalean azaleratzeko asmoarekin dabilta. Urtea amaitu aurretik, hiru ekimen antolatu ditu Urnietako Gaztetxeak, herriari begira. Batetik, hitzordua egingo dute, abenduaren 21ean, eguerdian, San Tomas eguna ospatzeko asmoz. San Juan plazatik hasita, Matxo tabernarako bidea hartuko dute, herriko trikitilarien laguntzaz. Bertan, txistorra-pintxoak dastatzeko aukera egongo da. Bestetik, abenduaren 24an, kalera aterako dira abestera, goizeko 10:00tatik aurrera, San Juan plazatik abiatuta, eta, azkenik, urteko azken eguneko San Silbestre lasterketa herrikoian otarra zozkatuko dute. Aipatutako hitzordu guztietan, salgai izango dira Gaztetxearen aldeko zapiak eta lasterketaren ondoren zozkatuko den otarraren txartelak.

## Kantazaunen entsegua, ostegunean

Euskal kantuz beteko ditu kaleak Kantazaunek Gabon egunean: San Juan plazan bilduko dira, abenduaren 24an, arratsaldeko 17:00tan, herriari itzulia emateko asmoz. Azken entsegua abenduaren 19an egingo dute. Arratsaldeko 18:30ean hasita kiroldegiko boxetan.



AIURRI

# Argien pizte-ekitaldia, Etxeberri plazan

Argiak piztuta, Gabon giroko sasoiari hasiera eman zion, joan den asteko asteazkenean, Magale-Salestarrak ikastetxeak: Olenzeroren eta Mari Domingiren bisitaldia, kantuak, dantzak, txokolatada... Ez zen ezertxo ere falta izan

### Erredakzioa URNIETA

Hemen dira Gabonak, eta horren iragarle, joan den astean Magale-Salestarrak ikastetxeak antolatutako argien pizte-ekitaldia. Etxeberri plazan egin zuten, pixkanaka, urtego agendan egonkortzen ari den hitzordua.

Asteazken arratsaldean, Olenzero eta Mari Domingiren bisitaldia jaso zuten haurrek eta dantzaz eta kantuz bete zuten oholta ikasleek, Gabon sasoiari ongi-etorria emateko asmoz.

Hotzak epeltzeko, ikastetxeak berak antolatutako txokolatada bero batekin biribildu zuten iluntzea.



Txirula-emanaldia egin zuten ikasleek ekitaldian AIURRI

OLENZERO ETA MARI DOMINGI BADATOZ.

**ABENDUAK 23 DICIEMBRE**

17:30 BERRASOETA PARREAN HARRERA  
KALEJIRA ETA PLAZA-DANTZAK EGAPE DANTZA TALDEA ETA LOURDES IRIBONDO  
MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEKIN

19:00 SAN JUAN PLAZAN HARRERA  
TXANDOIN TXISTURLARI BANDAAREKIN

EMANIEZ CUTUNA OLENZERO ETA MARI DOMINGI  
GAZTANAN ERRE ARTIAN IZUPI TZAPIA PUM

## Pintxo solidarioak

Gabonetako argien pizte-ekitaldian, pintxo solidarioak prestatu zituen herritar talde batek, Etxeberri plazan, Valentzian, DANAgatik kaltetutakoei elkartasuna adierazteko. Aste batzuk lehenago, jostailu-bilketa egin zuten, Catarrojako haurrei bidaltzeko asmoz. Aurki, altzari-bilketa egingo dute, antolatzaileen esanetan, oraindik ere nabarmenak baitira albo-kalteak.




AIURRI





UNAI PEÑALVO URTARRILA



MIGUEL CAVERO OTSAILA



JOSE MIGUEL ROMERO MARTXOA



ANE JALON UZTAILA



FERNANDO ANZA ABUZZUA



HILARIO RODEIRO IRAILA

# 2025eko egutegiko irudiak

Aste honetan Salkin elkarteak Agustin Leitza kalean duen egoitzan banatzen ari dira Andoingo Udalak hamabi argazkilariekin osaturiko egutegia. Aurtengo gaia merkataritza izan da

## Xabier Lasa ANDOAIN

Astelehenean egin zuten Udaltzaren argazki lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia, Udaltzaren egoitzan. Saridun gehien iritzia jaso du Aiurrik.

## Urtarrila: "Betiko kioskoa". Unai Peñalvo Arregi.

"Nire amonak (Carmina Dominguez) parkeko kioskoa itxi egin zuen orain hilabete batzuk, jubilatuta eta gero. Bere azken lan

egunean argazkiak ateratzen aritu nintzen, eta horietako batzuekin, muntaia txikia egin dut. Bere ohiko salgaiak, ogia eta egunkaria, bere eskuetan agertzen dira, bezeroari eskura ematen. Amonari egin nahi izan diodan omenalditxo da, azken batean".

## Otsaila: "Delicatessen". Miguel Caverro Carazo.

"Kale Nagusitik oinez nindoa, arreata piztu zidan harategi batek, kanpotik ikusita. Bi de-

tailek, hain zuzen: erakuslehoan, itxura batean kalitate oneko produktu ziruditenek batetik, eta, bestetik, barruko espazioa zeinen txukun ordenatuta zeukan. Komertzioak, bere osotasunean, kolore aniztasuna, bizitasuna, gustu ona... transmititzen zuen".

## Martxo: "Fruta eskura". Jose Miguel Romero Barco.

"Herriko fruta-denda batean, bere erakustokian dauzkana ma-

kina bat produkturen artetik, bi mandarina hartzen topa daiteke urteetan aurrera doan emakume baten eskua. Une hori erretratatu nahi izan nuen, eskura-eskura daukazun komertzio hori sinbolizatzeko eta goraiatzeko asmoz".

## Apirila: "Kale Nagusian euria". Imanol Fernandez Carballo.

"Kale Nagusian kokatzen den Betilore loradendaren harrera koloretsua, egun euritsu eta goibela, herriko komertzioen bezeroak izan daitezkeen herriarrak oinez... Gutxienik, hiru elementu horiek nahi nituen islatu argazki batean. Egutegiko, denetariko argazkiak ateratzen ditut han-hemen, baina argazki hori iruditzen zitzaidan egokiena argazki-lehiaketarako".

## Maiatza: "Ohitura zaharrei tinko eutsi". Nahia Rodiño Lopez.

"Zumea plazan bizi naiz gurasoekin, eta gertu-gertu daukagu Nerea Sarasolaren arraindegia. Facebooken saltzeatzin ari nintzela jakin ahal izan nuen bere amak ere eduki zuela arrain-

degia kale horretan, eta noizbait sariren bat irabazi zuela.

Egia esan, ez nekien hainbesteko historia zeukanik arraindegia horrek! Polita iruditu zitzaidan atzean daukan ibilbide luze hori irudi baten bidez adieraztea".

## Uztaila: "Guraizeen azken dantza". Ane Jalón Zatarain.

"Gaia zen zein jakin bezain laster, argi eduki nuen Kikerren (Gurrutxaga) bizartegiarekin egindako argazkia aurkeztu behar nuela. Toki magikoa baita lekua; pena, laster itxi beharrean izango delako, Etxeberrieta auzoko proiektu urbanistikoa dela eta. Keinutxo egin nahi nien Kikerri eta bere leku kuttun horri, eta, nire aita bere betiko bezeroa denez, hara joan zen momentu hura probestu nuen. Kike bere ofizioan murgilduta agertzen da argazkian; ea zer dioten egutegia eskuetan hartzen duten herriarrak!".

## Abuztua: "Churreria Mendoza". Fernando Anza Rey.

"Donostiarra naiz eta tamalez ez nuen ezagutu Mendoza txu-





**IMANOL FERNANDEZ** APIRILA



**NAHIA RODIÑO** MAIATZA



**JUAN PABLO FERNANDEZ** EKAINA



**JULIAN GUERRERO** URRIA



**JOSE ANGEL AMUCHASTEGUI** AZAROA



**AMPARO ALONSO** ABENDUA

rria. Baina Kaleberritik doan edonorentzat deigarria egiten dela uste dut: nolakoa zen erakusten duen argazki zaharra, kokapena, ondoko tunela, gaineko trenbidea... Jada ikusten ez diren negozio zahar bezain xarmagarri horietako bat islatu nahi nuen, eta zer egokiagoa txurreria baino? Egun, merkatalguneak gero eta uniformeagoak diseinatzen dituzte, eta joera horretatik kanpo geratzen direnak aldarrikatu nahi izan ditut”.

**Iraila: “Tiempo”. Hilario Rodeiro Cabanas.**  
Denboraren iraganak komertzioetan daukan eragina islatu nahi izan dut. Herriko oinetako-konpontzailearen eskua ageri da argazkian, urteen joanak, ofizioa... islatzen dira bere eskuaren zalean. Goiz bat igaro nuen artisau horrekin bere dendan, solasean, egundoko bizipena izan zen niretzat. Eta, bien bitartean, argazki mordo atera nizkion. Nork daki, bali-teke bera izatea herrian ezagu-

tu dugun azken artisaua, zoritarrez”.

**Urria: “Gau Beltza”. Julian Guerrero Viejo.**  
“Gure gertuko komertzioak herriko kulturaren eta tradizioen sustatzaile ere badirela adierazi nahi nuen, eta, horretarako, erakusleioa bikain zaintzen duen Keinuu euskal jantzien dendara jo nuen argazkiak ateratzera. Gau Beltzaren festarekin lotzen zen erakusleioa zeukaten apainduta, primeran, hortaz!

Mozorrotutako pertsonaje bati eman nion protagonismoa, kontrapikatuan, eta propio zuri-beltzean, arimen gauarekin bat egin nahirik”.

**Abendua: “Contando ovejas”. Amparo Alonso Villares.**  
“Andoainen erakusleio asko topa daitezke ederrak, ikusgarriak. Baina, igual, Zumea Kaleko Maindi Optika hautatuko nuke bereziki, Gabon girokoa, batik bat. Iazko abenduan, iragarri zutenean “Andoaingo ko-

mertzioak” izango zela 2025eko egutegiaren gaia, bi aldiz pentsatu gabe joan nintzen bertara. Inprobisazio-puntu eduki nuen argazkiarekin, ze hasieran itzalak erakusleioan islatu nahi izan nituen. Mugikorrarekin ez da lan erraza, eta atera eta atera ari nintzela, hor jarri zen ume bat, kieto-kieto. Paretik kendu ez eta, azkenean, berari atera nion. Badirudi, barruko ardiak kontaktzen ari dela, eta hortik datorkio izenburua argazkiari”.

Eguberri eta Urte berri on!!!

Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224





Nahia Patinoren senitartekoak eta lagunak Urkiola tabernan, igandean egin zuten irekiera-ekitaldian. AIURRI

# Nahia Patinoren aldeko ekimena

Nahia Patino Arancon 11 urteko Andoaingo haurrak artrogriposis gaixotasun arraroa dauka, eta bere terapiak eskatzen duen dirutzari aurre egiteko akuarelak salgai jarri dituzte Urkiola tabernan

*Nahia eta bere nahia* izenburua daramana.

“Saioa Arancon, Nahiaren ama, eta biok egun berean jaio ginen, eta esango nuke orduz geroztik garelako lagun minak. Jakitun naiz Patino Arancon familiarentzat zenbateko kostua daukan Nahiaren terapiak, eta neure buruari maiz galdetu izan diot, zer modutara eman diezaiekedana laguntzatxo. Bada, galdera horri erantzuteko orduan, nire artean pentsatu nuen, zergatik ez kuadroak salgai jarri, margotzen aritzen naiz-eta?”.

Ezinbestekoak diren kolaboratzaile ugari dituen ekimena dela azpimarratu nahi izan du Delgadok. “Tolosako Arri Studio Arrixu Zugarramurdi kartelaz, maketazioaz eta gainerako digitalizazio lanez... arduratu da, Ibon Barandiaranek akuarelentzat markoak eta itsulapikoa egin ditu, Nahiaren aitak eta aitonak giltzatak egin dituzte, Keinu euskal jantzien dendak poltsak logoarekin diseinatu ditu...”.

Ekimena Andoainean gauzatu aurretik, Tolosan 3 tabernan egon da zenbait astetan. “Espero ez genuen arrakasta eduki du erakusketak. Jende mordoak hurbildu zen ikustera, eta 18 akuarela saldu ditugu!”.

## 13 akuarela, erakusgai eta salgai

2018ko urtarrilean Basteroko erakusgelan egin zuen erakusketan adierazi zuenez, barruan mugitzen zaizkion emozio eta sentimenduek gidatzen diotela sormen prozesuari ekitekoan adierazi zuen Delgadok. Orduan zehaztu zuenez, “surrealista izan ohi da nire estiloa; *naif* edo nahi duzun bezala definitu, Basteron ikusi ahal izan zen bezala”.

## Xabier Lasa ANDOAIN

Igande arratsaldean egin zuten akuarelak jartzeko ekitaldia Urkiola tabernan. Artelanekin batera, giltzatak eta Keinu euskal jantzien dendak egin dako poltsak jarri zituzten salgai, eta baita laguntza-kutxa ere, nahi duenak ekarpena egiteko. Guztia, urtarrilaren 15a bitarte egongo da erakusgai eta salgai.

Tolosan bizi eta bertan mazarzeta klaseak ematen dituen Naiara Delgado artista andoaindarrak bultzatu du ekimena,

**Gabon zoriontsuak!**

**Zumea, 18  
ANDOAIN  
943 593 777**

gozotegia

**arruti**





Oraingoan, ordea, estiloa zeharo aldatu, eta akuareletara jo du Delgadok. Horietan, hirigunetan eta naturan ikusi daitezkeen paisajeak hartu ditu gaitzat. “Akuarelaren teknikan sakontzeko, ikastaro batean murgildu nintzen orain gutxi, eta egia esan, hortik jo dit sormenak azken aldian. Goizean goiz jaiki, eta eguneroko zereginei ekin aurretik, mordoa egin dut. Horietako asko eraman nituen Tolosako tabernara, eta berdin jokatu dut Andoainen ere”.

45 euroko salneurria daukate akuarelek, “ez dira garesti jarri nahi izan; orekatua da salneurria, eta gainera, jakinda arrazoi edo kausa ezin ongileagoa dagoela tartean. Andoaingo herritarrek erakusketari harrera ona egitea espero dugu”.

Delgadok argi dauka ekimenak bi helburu dituela, sortzaile barentzat bere artelanak erakustek eduki ohi duen bizipen pertsonalaren ginetik. “Patino Arancon familiari laguntzea da helburu nagusia, eta horrekin lotuta, ikustaraztea Nahia bizi duen egoera pertsonala. Fazeta artistikoa alde batera utzi beharra dago horrelako kasuetan”.

**Familia, hunkituta eta eskertuta** Jesus Patino eta Saioa Arancon dira Nahiaren gurasoak, eta benetan eskertuta daude, “hunkituta” beren hitzetan, Nahiaren aldeko ekimena bultzatu izana-



Saioa Arancon eta Nahia Patino Arancon ama-alabak. AIURRI

gatik, eta jendearen aldetik jasotzen ari diren babesagatik.

Aranconek Nahia jasaten duen gaixotasunaren xehetasunak azaldu dizkigu: “Nahia 2013ko martxoaren 7an jaio zen, artrogriposis deituriko artikulazioei eragiten dien gaitz arraro batekin, eta larrien, aldakei eta belaei eragiten die”.

Gaixotasun arraro horrez gain, Nahia erditze-unean sufrimendu fetala jasan zuen, eta ondorioz, desgaitasun fisiko eta psikikoak ditu.

Nahia ahalik eta autonomia handiena izan dezan da bilatzen ari direna jaio zenetik, eta terapia ugarietan murgilduta dabil horregatik. Horrela, urtero, hilabete batez, Madrilgo zentro espezializatu batean egonaldia egiten du Nahia, gurasoekin batera. Era guztietako terapiak aplikatzen dizkiote Nahiari, bertan. Ebakuntza bat baino gehiago ere egin dizkiote, eta horiei esker, egun, eskuko hatzak irekitzen ditu, aulki batean eseri ahal izatea lortu du orain



Naiara Delgado eta Saioa Arancon Urkiola tabernan, igandean. AIURRI

gutxi, eta bestalde, ortopedek diseinatu dioten mekanismoaren laguntzaz, zutik mantendu liteke pittin bat.

Komunikatzeko orduan, Nahia soinuak egiten ditu eta begiak mugitzen ditu. Baina arlo hori hobetzeko asmoz, tableta baten laguntzaz eta kausa-efektuzko jolasekin eta ikonoekin lanketa egiten ari dira azken aldian. Estatuko Agiri Ofizialak identifikatzen dituen gaixotasun arraroen zerrendak oraingo ez du izendatu Nahia pairatzen duen artrogriposisa. Hori dela eta, Patino Arancon familiari ezin du jaso beste hainbat gaixotasun arraro dutenen adina laguntza publikorik. Oso garestiak dira Nahiari aplikatzen zaizkion bateko zein besteko tratamenduak,

## URTARRILAREN 15A BITARTE EGONGO DA ERAKUSKETA IKUSGAI ANDOAINGO URKIOLA TABERNAN

ahalegin ekonomiko itzela dakarkio horrek familiari, baina nabaritzen ari direnez Nahiaren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen diotela, horri eusten diote.

**Herriko haurrekin sozializatuta** Nahia ASPACEn eskolaratuta dago; hain zuzen, Berrozpe ikastetxean kokatzen den “Ontza” gela egonkorreko bateko ikaslea da. Profesional talde baten esku egoten dira gela horretako ikasleak. Ikasle bakoitzaren curriculum-egokitzapena garatzea eta eskola-komunitatearen beraren jarduera eta proiektuetan parte hartzea da gela horren helburua. Saioa Aranconek adierazi duenez, “Nahia pozik joaten da gela horretara, besteak beste, Berrozpeko beste ikasleekin sozializatzeko aukera ematen diolako, eta horiekin eskolaz kanpoko jaietan eta parte hartu ahal izaten duelako. Berrozpeko ikasleentzat ere aberasgarria da Nahia moduko pertsona bat eza-gutzea eta berarekin partekatzea hainbat aldarte alai”.

# Ernaitza

## liburudenda

**Gurean topatuko dituzu:**

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

## Eguberritako eskaintza bikaina

Zumea, 9. ANDOAIN. 943 592 459  
ernaitza.amilibro.com  
ernaitza@yahoo.com





ORIAMENDI

## Finala osatuko da asteburuan

**ERREMONTA** Urriza-Larrañaga eta Ezkurra II-Azpiroz bikoteen arteko partida jokatu da, larunbat arratsaldean. Galarretan jende asko espero da Binakako txapelketako azken finalaurrekoan. Partida erabakiorra da, bertatik aterako baita Segurola-Barrenetxea IV bikotearen aurka finalean lehiatuko den bikotea.

## FUTBOLA Euskalduna, Gorengo mailan, lidergotzan

Ikusgarria da Gorengo mailako aurrealdea, lau talde lidergotzaren borrokan lanean tinko ari direlako. Gaurkoz, lehen postuan da Gaztañagaren taldea.

### Sailkapena

1. Euskalduna	26 p.
2. Roteta	24 p.
3. Santo Tomas Lizeoa	24 p.
4. Orioko	23 p.
5. Usurbil	18 p.

## SASKIBALOIA Kadete mailako Plastigaurren garaipen erabakiorra

Kadete mailako neskek partida erabakiorra zuten, jokoan baitzegoen Errendimenduzko zilarrezko ligan aritzea. Bada, Plastigaur taldeak mendean hartu zuen Bergara (54-16). Garaipen horri esker, urtarrilean finalaurrekoak jokatu dituzte. Infantil mailako ere partida irabazi zuten: Erroibide 20-64 Akerbeltz.



SANTA KRUZ ELKARTEA

## Valentin eta Eugenio, garaile

**MUS TXAPELKETA** Joan zen asteburuan Urrietako Santa Kruz elkartearen usadiozkoa bilakatu den txapelketa jokatu zen. Aurtengo irabazleak Valentin eta Eugenio izan dira. Argazkian txapela buruan eta saria eskuetan ageri dira. Irabazleen zerrendan, Juan Migel Arteaga eta Jose Luis Toledotxiki iazko garaileen lekukoa hartu dute. Zorionak irabazleei!

## Hitzordua, larunbatean

**FUTBOLA** Aurreko astean gorritxoek 0-1 galdu zuten, liderraren aurka. Larunbat honetan, goizeko 10:00tan hasita, Urrietak Usurbil taldea jasoko du etxean.

### Sailkapena

1. Debagoiena	20 p.
2. Segura	20 p.
5. Urnieta	14 p.
8. Usurbil	9 p.



AIURRI



Urrietako  
udala

**BINAKAKO** Orona Fundazioa

**FINALAURREA** | ABENDUAK 21 LARUNBATA - 15:15  
GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA | 17:00h

JABALERA - APEZETXEA vs  
LOITEGI - ZUBIRI

2. PARTIDA | 19:00h

URRIZA - LARRAÑAGA vs  
EZKURRA II - AZPIROZ

3. PARTIDA

ANSA II - MARTIRENAI vs  
ALDABE - BARRENETXEA IV

ORRIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

EUSKADI MARKA COUNTRY

sukia

PAPELERA OROPUCOANA DE ZUCUÑAGA, S.A.U.

HAIN OROPUCOANA

ORRIA MENDI | AIURRI

ORONA

SARBETAK ENTRADAS





Urrietako lasterketa, artxiboko irudian. AIURRI

## Urte zaharreko lasterketak, Andoainen eta Urnietan

**LASTERKETAK** Goizez egingo dute lasterketa Andoainen eta, arratsaldean, Urnietan

### Erredakzioa ANDOAIN

Korrika agurtuko dute 2024 urtea andoaindarrek eta urnietarrek, ezinbesteko hitzordu bilakatu den San Silbestre lasterketarekin. Biak ere jaigiroan ospatzen dira, ezin bestela, Andoaingo Lasterka Itzuli ekimenak eta Urrietako Poxta Zahar elkarteak partaideak mozorro-tuta parte hartzeko gonbita luzatu baitute. Ibilbidean, gainera, ez dituzte herrikideen animoak faltako.

### Andoainen, 11:30ean hasita

Dagoeneko izena eman daiteke rockthesport.com atari digitalean, 10 euro ordainduta. 14 urtekoek gurasoen baimena beharko dute. Lasterka egiten da, baina ez da ohiko proba. Izan ere, urte amaierakoa jai giroan egiten da. Antolatzaileek gonbita luzatu dute: "Urtero bezala, giro paregabea izango

da. Mozorroak ez dira faltako eta, noski, herriko komertzioek eskainitako sariak zozkatuko dira". Abenduaren 31n, lasterkariak goizeko 11:30ean abiatuko dira eta Andoain barrera bost kilometro pasatzoko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek. Ikusleak ez dira faltako, bide bazterretan.

### Urnietan, 15:30etik aurrera

Urnietarren kasuan, arratsaldean izango da kirol-hitzordu herrikoia. Bazkalostean, 15:30ean zabalduko da izen-ematea (hiru eurokoa da parte-hartzea). Hala, 16:00tan ekingo zaio urteko azken arratsaldeko ekitaldiari, haurrentzat prestatutako lasterketarekin. Jarraian, 16:30ean egingo da herriari 4 km-ko itzulia emango dion San Silbestrea. Sari-banaketaren ondoren, poteo girotua antolatu du Poxta Zaharrek, Frontoi tabernatik hasita.



Adarramendi. AIURRI

## MENDIA Ostiral honetan, Adarramendira

Azken urteotako ohihurtari jarraituz, Adarramendira egingo dute irteera urnietarrek. Gauez, izango da, ostiral honetan. Be-sabitik abiatuko dira mendizaleak, arratsaldeko 18:00tan hasita, baina ahalik eta auto gutxien erabiltzeko, 17:30ean San Juan plazan biltzeko deialdia egin dute. Buruko argia edo frontala, eta neguko arropa eramatea gomendatzen dute.

## IGERIKETA Buruntzaldea IKT-ko igerilariak, Tolosan

Larunbat honetan, Tolosako Usabalen, benjamin eta alebin mailako XXIV. Paco Sanchez Saria antolatu dute. Askotariko probak egingo dituzte: 50/100 tximeleta, 50/100 bizkar, 50/100 bular, 50/100 libre eta lau estiloetako 200 metrokoa. Buruntzaldea IKT taldeko 24 haur izango dira bertan. Saria arratsaldeko 15:30ean hasiko da.



Villegas eta Lizeaga, gazte mailako txapeldunak. AIURRI

## Unai Villegas eta Lide Lizeaga, Zizurkilgo Gau Krosean garaile

**LASTERKETAK** Kadete mailako andoaindarrak eta urnietarra 2,5 kilometroko lasterketan nagusitu ziren

### Erredakzioa ANDOAIN

Zizurkilgo Gau Krosean antolatzen dute abenduan eta aurtengo gazteen lasterketan Betteri-Buruntzako lasterkariak nagusitu dira. Dena esatera, andoaindarrak eta urnietar bakarra ziren irteeran eta nesketan nahiz mutiletan biak izan ziren garaile.

Unai Villegas Ramosek hegana egin zuen (8:07 minutu), baita Lide Lizeaga Jauregik ere: 9:45. Distantzia 2,5 Km-koa zen.

Helduen mailan, Koldo Velasco Urizar 12. sailkatu zen. Nesketan, Ainhoa Jauregi Zubeldia 10. postuan sailkatu zen, eta Irati Velasco Urizar 14. ean.



Villegas gaztea, helmugara iristen. AIURRI



# ORMENDI KIROLAK



Olentzero eta Mari Domingiri esker eskaerak osatzen primeran gabiltza





# HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## BILKURA

### URNIETA Elkarretaratzea

Euskalgintzak deiturikoa, Aiurri astekariaren alde.

19:00, San Juan plaza.  
Abenduak 19, osteguna.

## SANTOMAS

### ANDOAIN Santa Kruz elkarte

Txistorra eta ardoa dastatzeko aukera izango da jubilatuen eskutik.

12:00, Olagain auzoa.  
Abenduak 21, larunbata.

### ANDOAIN Irunberri

Kantu kalejira, Irunberri tabernak antolatuta.

12:30, Irunberri.  
Abenduak 21, larunbata.

### URNIETA Santomas azoka

Bertako produktuen dastaketa.

12:00-14:00, Plazido Muxika.  
Abenduak 21, larunbata.

## KONTZERTUAK

### ANDOAIN Gabonetako saioa

Musika Eskolako ikaslerik txikienek ipuin musikatua eskainiko dute, "Alitzegalaria" izenburuko.

18:00 Bastero Kulturgunea.  
Abenduak 19, osteguna.

### ANDOAIN Golden Apple Quartet

Agur-bira Andoaindik igaroko da.

19:30, Bastero Kulturgunea.  
Abenduak 22, igandea.

### ANDOAIN Abesbatzen emanaldia

Udal Musika Eskolako haur, gazte eta helduen abesbatza.

18:00, Berrozpe kapera.  
Abenduak 22, igandea.

### ANDOAIN Southern Gospel

Karlos Etxaniz, Jon Imanol Etxabe, Olatz Otxoa eta Santi Romano.

19:30, Bastero Kulturgunea.  
Abenduak 23, astelehena.

### URNIETA Goizargi Gospel Choir

Abesbatzak eta pianojotzaileek osatuta: Musika, mugimendua eta eszenaratze zaindua.

19:00, Sarobe.  
Abenduak 26, osteguna.



Kaleko ikuskizuna eskainiko du Aukeran Dantza Konpainiak. DAVID HERRANZ

### URNIETA Aiurri, Aukeran Dantza Konpainiaren ikuskizuna

Aukeran Dantza Konpainiak "Amama" ikuskizun berriena taularatu zuen aurreko asteburuan, Saroben. Datorren asteburuan, berriz, kaleko ikuskizuna eskainiko dute plazan. San Tomas eguna ospatzen da eta dantza ikuskizunaz gain, Urnietako gazta eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.

Abenduak 21, larunbata. 12:00, San Juan plaza. Urnieta

### URNIETA DJ saioa

Kanpaikaden entsegua eta DJ Flowing disko-jartzailea.

20:00, Etxeberri plaza.  
Abenduak 27, ostirala.

### ANDOAIN Gorka Urbizu

Sarrerak agortuta daude.

20:00, Bastero.  
Abenduak 27, ostirala.

### ANDOAIN Gabon kantak

Alberto Agirre Abesbatza, Olagain Txistulari banda eta gonbidatuak.

12:00, Santa Krutz eliza.  
Abenduak 28, larunbata.

### ANDOAIN Kalejira

Olagain Udal Txistulari Elkarte.

11:00, kalez kale.  
Abenduak 31, asteartea.

## KIROL GALA

### URNIETA Aitortza-ekitaldia

laz bezala, kirol gala egingo dute.

19:00, Sarobe.  
Abenduak 27, ostirala.

## GABON FESTAK

### ANDOAIN Gutun bila

Olentzero eta Mari Domingik gutunak jaso eta opariak banatuko dituzte.

18:00-21:00, Etxeberrieta plaza.

Abenduak 21, larunbata.

### URNIETA Olentzero, Mari Domingi

Egape Dantza Taldeak antolatuta.

17:30, Berrasoeta parkea.  
19:00, San Juan plaza harrera.  
Abenduak 23, astelehena.

### URNIETA Kantazaun

Kalez kale ibiliko dira.

17:00, San Juan plaza.  
Abenduak 24, asteartea.

### ANDOAIN Olentzero, Mari Domingi

Udalerrira hurbilduko dira.

17:30, Santa Krutz eliza parean.  
Abenduak 24, asteartea.

### ANDOAIN Gaztain-jatea

Urkik antolatuta eta Malkogarriyak taldearen parte-hartzearekin.

12:00, Juanita Alkain plaza.  
Abenduak 28, larunbata.

### ANDOAIN Bertsoa eta trikitixa

Punttuka eta Andoaingo trikitilariak.

18:00, Goikoplaza-Zumea plaza.  
Abenduak 28, larunbata.

## MAGIA

### URNIETA Andoni Magoa

"Desorekatua" ikuskizuna.

17:30, Sarobe.  
Abenduak 22, igandea.

## ZINEMA



### ANDOAIN

#### BASTERO

**Quando cae el otoño**  
Abenduak 28, larunbata. 19:30.  
Abenduak 29, igandea. 19:30.

### Superklaus

Abenduak 28, larunbata. 17:00.  
Abenduak 29, igandea. 17:00.



## SINOPSIS

### Quando cae el otoño (Quand vient l'automne)

**Zuzendaria:** François Ozon. **Gidoia:** Josiane Balasko, Hélène Vincent, Ludivine Sagnier, Pierre Lottin, Garlan Erlos, Sophie Guillemain, Vincent Colombe, Marie-Laurence Tartas, Malik Zidi, Paul Beaurepaire, Sidiki Bakaba, Pierre Le Coz, Michel Masiero, Adam O-H, Isabelle Mazin,... **Herrialdea:** Frantzia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, Intriga. **Iraupena:** 102 m.

## Donostiako Zinemaldian saritu zuten

Michellek, sasoi betean dagoen amonak, erretiro lasaia bizi du Borgoinako herrixka batean, eta han bizi da Marie-Claude ere, bere lagunik onena. Santu Guztien Egunean, Valerie alaba etortzen zaio ikustera, Lucas biloba eskola-oporren astean uzteko asmoz. Baina ezer ez da espero bezala gertatuko. Donostiako Zinemaldian gidoi onenaren eta aktore onenaren sariak jaso zituen Ozonen lan berrienak.

## SINOPSIS

### SuperKlaus

**Zuzendaria:** Steve Majaury, Andrea Sebastiá, Steve Majaury, Andrea Sebastiá. **Hizkuntza:** Euskaraz. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 92 m.

## Haurrentzat zinema, euskaraz

Buruan kolpe handi bat eman ondoren, Santa Claus esnatu egiten da, SuperKlaus dela uste baitu, film-saga ezagun bateko superheroia. Horrek kaosa sortzen du Ipar Poloan, eta Fafnir jostailu-fabrikatzaile zekenak egoera aprobeztatzen du Santa tailerraren kontrola hartzeko. Billiek, neskato maltzur eta ausartak, C.A.R.L. robotak eta Leo elfoak bakarrik zapuztu ahal izango dituzte beren asmo gaiztoak, eta Gabonak salbatu beranduegi baino lehen.



## Arberasi, omenaldia

Gipuzkoako Odol-emaielen elkartearen ekitaldian, 2024 urte osoan 60, 80 edota 100 txandatan odola ematera iritsi diren hainbat odol emaiela omendu dituzte. Eta tartean da, Juan Carlos Cañas Arberas. Andoaindarrentzat aski ezaguna da Txistoki plazako Arberas margoak negozioan urte luzez jardun zuelako lanean. Erretiroa hartuta dago, orain.





Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahal-dun-ordea Urnietara bertaratu zen. AIURRI

## Trienekens Urnietako lantegia eraberritu dute

Urnietako Erratzu industrigunean dago Trienekens lantegia, ontzien tratamenduan lan egiten duena

**Erredakazioa** URNIETA  
Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) ontziak sailkatzeko eta bereizteko Urnietako instalazioaren birmoldaketa inauguratu du aste honetan. 800.000 euroko inbertsioarekin, Urnietan ontziak sailkatzeko eta bereizteko 15.000 tona trata-

tzen dira. Jose Ignacio Asensio GHKko presidentearen ahotan, "inbertsio horri esker, tratamenduari produktibitatea, segurtasuna eta kalitatea hobetzen ditugu, ontzien birziklatzea hobetuz eta ekonomia zirkularraren ereduarekiko gure konpromisoa indartuz".



Aitzindaria den sistema darabilte Urnietako lantegian, egindako inbertsioari esker. AIURRI



Lupita, denboraldiko irabazlea. AIURRI

## "Lupita", Egunean Behin 16D denboraldiko onena

Udazkena hartu du lehiaketa ezagunaren hamaseigarren edizioak eta, ohi bezala, ehunka izan dira "Aiurri" taldean jokoa aritu diren jokalaria. Denboraldi honetan, astez aste, Arruti gozotegiko pasta-kaxa bana nozkatu da. Hurrenkera kronologikoan, honatx irabazleak: Beñat, Maite, Ioritz, Nereita, Mirener, Txapar, Jonpoz, Inge, Patxi eta Izaro. Azken astean denboraldi osoko onena saritu dugu eta hura "Lupita" jokalaria izan da. Zorionak Lupita! Gainerakooi, laster arte! Egunean Behin antolatzen duen Codesyntaxek 17D iragarri arte.

## Bakarrizketak Igara gunean, ostiralean, Igara espazioan

Aiora Enparantza eta Manex Astigarraga bakarrizketalariak Igara espazioan ariko dira, abenduaren 20an, iluntzeko 19:30etik aurrera.

## ESKERTZA-OHARRA

ESKELA

### Ines LEKUONA AIZPURUA

(Ernaitza liburudenda)

2024ko abenduaren 9an hil zen, 92 urte zituela



**Ines Lekuona Aizpuruaren sendiak bihotz-bihotzez eskertu nahi ditu jasotako dolumin, babes, nahiz maitasun adierazpen guztiak.**

*Etxeko nahiz kanpokoekiko eskuzabaltasuna eredu, ederra izan da zurekin bizitzea.*

*Mila esker, ahizpa, arreba, izeba.*

*Noizbait ikusiko dugu elkar Txindokipean.*

Andoainean, 2024ko abenduaren 18an



AIURRI

## Aldundiaren egutegia

Iaz egin bezala, aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren egutegia Andoainean eta Urnietan banatu dute. Aurtengo lehiaketa fotografikoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Argazki Elkarteak antolatuta dute, eta "Gipuzkoa 1000 urte" leloa izan du.

a s t e k a r i a



2025eko lehena:  
Urtarrilak 10,  
ostirala

**AMABI**
**Gabon zoriontsuak!**

haur eta gazte jantziak  
**0-15 urte**

eta  
emakumeentzat

**HİKA ONLY PIECES**

Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN. 943 57 31 62

**andoaINDARRA**  
euskaraz



GURE  
GARIA

GURE  
OGIA

ORAIN  
OGI  
INTEGRALA  
ere bai

# EUSKAL OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

**URNIETA**

GAZTELO - Errekalde, 14

 **hazi**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SALA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA